

Kaixo lagunak!

Zer moduz zaudete?

Aspaldi ez dugula elkar ikusten, eta baloreetan askotan egin dugun bezala, dinamika dibertigarri bat proposatu nahi dizuet, ea zer iruditzen zaizuen...

Eskutitz bat idatzi beharko duzue, baina ez duzue jakingo, nori idazten diozuen. Noski, zuek norena jasoko duzuen ere ez....

Beti bezala, idazten hasi aurretik, pentsatzen denbora pixka bat pasatu behar dugu...

Nolako eskutitza jaso nahi duzu? Luzea edo motza?

Poliki eta txukun idatzia? Edo azkar eta ulertzen ez dena?

Gauza dibertigarriak kontatzen dituen? Edo ez duena ezer kontatzen?

Galdera hauekin, askotan erabili dugun ENPATIA erabiliko dugu, eta guk eskutitz polita jaso nahi badugu, zer egin beharko dut nik?

Gogoratu, zirriborro bat egiten dugunean, gero gauzak konpondu eta hobe ateratzen direla... eta noski, gogoan izan, eskutitz batek, data, hasierako agurra eta bukaerako agurra izaten dituela.

Hurrengo orrian, eskutitza idazteko orri dotore bat aurkituko duzue, idazteko leku asko daukana, beraz, beldurrik gabe idatzi. Eta denboratxo bat pasatzen denean, zuek ere berri onak jasoko dituzue, bidaltzen dituzuenak bezain onak!

Ez zaizue dibertigarria iruditzen, lagun "sekreto" baten eskutitza jasotzea? *galdera hau erantzun behar duzue, aurrera jarraitu ahal izateko.